

# GAZTEA



## Gaztetik zaartzera penitentzia luzatzen duenaz

### § 1

Erraiten du Spiritu Sainduak: *Memento Creatoris tui in diebus iuventutis tuæ, antequam veniat tempus afflictionis tuæ et appropinquent anni de quibus dicas, non mihi placent: Oroit zaitezi zeure laungoikoaz zeure gazte denboran, zaartzeko penetara baino leen, eta urbildu gabe urte ek, zeinengatik datozinean, erranen baituzu: eztira ene gogarako. Gazte zareino, aala eta indarra duzuino, trabaila zaitte, orduan eskuei eragiezu. Zeren zaartzuz gero, zaartzeak berak emanen deratzu egitekorik asko.*

Anbatik anbatean, ederrago zaitza lainkoari gaztetasuneko obra onak; zaartasunekoak baino. Zeren gaztetasunekoak bere egitez obeago, eta ederrago baitira. Manatzen zuen lainkoak lege zaarrear, fruitu guztietarik primizia eman ziazotela, guztietarik parte bat, eta parterik oberena, prinzipalena eta estimatuena, nola komunzki oi baita leenbizikoa, oferenda ziazotela. Manatzen zuen alaber lainkoak berak, usoetarik, ez uso andiak, baiña uso kumeak ekar ziazotela. Gazteak nai zituen, eta ez zaarrak: zeren usoak zenbatenaz gazteago, anbate-naz dira obeago, gozoago eta zaporetsuago. Ala dira bada alaber gaztetasuneko obra onak ere, zaartasunekoak baino gaiago eta baliosago. Eta alatan da gure lainkoa ere etarik gutziosago, desirosago eta zaleago: Ala erraiten du Mikeas Profetaren zazpigarren kapituluari: *Proccas ficus desideravit anima mea: Goiz ontzen diren fikoak, gutziazten zituen ene arimak; presuna gazteen leenbiziko obra on ek nai nituzke, etarik naiz zale, eta gura, ek zaizkit on, gozo, eta ezti.*

Argatik da Teologoen errana, gizona adimendura eltzen den be-

zain sarri, puntu berean, obligatua dela biotzaren Iainkoagana ailtchaztera, aren manamenduen konplitzeko gogo artzera, eta arrazoin naturalaren arauaz bedere bizitzera.

Pintatzaille batek egin baleza imajina eder bat, alde guztiz konplitu eta abantaillatua; imajina ark, baldin ezagutzarik balu, nori leenik beatu bear ote leraukayo? Segur da pintatzailleari berari, bere egilleari. Beraz uneletan gizonak ere, Iainkoak berak bere imajinara eta idurira, ain ederki egina denaz geroz, adimendura eltzen den bezain fite, bere egilleari berari, bere iduria eman dioenui bear dio beatu, aren zerbitzuan bear du bere aala enplegatu. Unen arauaz erraiten du Iondone Paulok: *Laborantem agricolam oportet primum de fructibus accipere*: arrazoin da traillaitzen den laborariak, berak leenik bere fruituetarik dasta dezan. Eta Iondune Paulok berak dioen bezala: *Dei agricultura estis*: zuek zarete, eta gu gara, Iainkoaren laborantza; gu gara, Iainkoaren lur-landua, apaindua eta traillaatua. Arrazoin izanen da beraz alaber, Iainkoak berak laborari onak bezala, bere traillaia leenik goza dezan: eta adimendura edo endelegamendura eltzen garen puntu beretik, gure obren primizia eta leena dasta dezan.

Baina, ai, ai, ai, eta millatan ai! ¡Non da bere leen fruitutik, bere obren astetik, Iainkoari dasta arazitzen deraukanik? ¿Non da guristino goiztiarrik? Goiz ontzen denik: gaztedanik Iainkoa zerbitzatzen duenik? *Vae mihi quia factus sum sicut qui colligit in automno racemos vindemiæ, non est botrus ad comedendum*: ai ene urrikalkizuna (dio Mikeas Profetak), zeren ni egin naiz udaren finean, berzeren bil ondoan, maats ondar mondarren bila dabillana bezala. Oberenak bertzeek eraman dituzte. Ezterautate morkokta bat ere, eta ez bikor bat aoran eman aal ditekenik utzi. Bada aur beror erran aal dezake gure Iaungoikoak ere. Zeren gure gaztetasuna berzek ioaiten du, leenbiziko obrak bertzek biltzen ditu. Deus gelditzen bazaika ere, bil ondokoak, ondarrak, zaartzekoak, gelditzen zaitza. Eta gaištoeneko kontuan, ailekitza ek ere, edo ek bedere geldi!

AXULAR, *Sarako Erretorak.*

